

# Sakaneren gainean egindako azterketak argitze aldera

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON\*

## SARRERA

**D**ialektologiaren alorrean, Xenpelar bertsolari bikaina parafraseatuz, *Camino jauna 'trebea' dela askori diot aditzen ...* esango genuke. Eta ez gatoz gu artikulu honetan kontrakoa esatera. Are gehiago, erabat gatoz bat horrela diotenekin, bere obra ezagutzen baitugu eta dudarik ez dugu oso lan garrantzitsua burutzen ari dela euskal dialektologiaren barnean.

Bestalde, gure aldetik ez dugu inolako asmorik, ez abileziarik seguru asko, bere aldamenean itzalik txikiena ere egiteko, gure jarduna aisialdiko kontua baino ez da, eta, gehienbat, Sakanako egungo hizkuntza gorabeherak ditu helburu.

Gauzak horrela, hau da, bakoitzaren estatusa eta jarduna bere tokian jarriarik, hala ere, ez gatoz bat aurreko FLV aldizkariko 99. zenbakian “Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna” artikuluan Camino jaunak esaten duen guztiarekin, bereziki guk buruturiko artikulu batzuetatik estrapolatu dituen esaldi eta gogoeta zenbaiten inguruan dioenarekin eta horiek, hain zuzen, adierazten saiatuko gara hurrengo lerrootan.

Hasteko, Camino jaunaren “... dialektologiaren tolesturak eta azpildurak ongi ikus daitezke Etxarri-Aranazko plazan, baina ez da kaltegarri gertatuko, Arazko, Putterriko, Beriaingo, Ma(d)alengo malkorreko edo Gazteluko gainetara igatea, bertatik ageri den ikuspegiak gogoeta egiteko” hausnarketaren aurrean zera esan nahi diogu. Dialektologoak jakin beharko luke bere jardunerako egokiago gerta dakiokeela plazetako giroa mendi puntetako baina, ezen azken hauek gogoeta edo hausnarketa egiteko baliagarri suerta daitezke, bai, baina gogoeta edo hausnarketa horiek tontorrez tontor edo muinoz muino joaterakoan basoaren sakonean sartu edota laino artean gal daitezke nahasmendu handia sortuz. Herrietako plazetan bertan baliatzen dena, gutxie-

\* Euskal filologian doktorea.

nez, jaso daiteke eta, lehenengo aldiz aitortu behar diogu Camino jaunari, baietz, arrazoia duela, horretan jardun dugula guk azken urte hauetan, Sakanako plaza gehienetan. Dena dela, ez pentsa mendigainak baztertzen ditugunik, batzuetan izaten baikara horietan ontoak, zizak, paisaia bera, ... gozatzen eta toponimoren baten zergatia, besteak beste, aurkitu nahian ere bai, beste batzuetan.

## “IRAÑETAKO EUSKARA” ETA “SAKANERAK” ARTIKULUEN NONDIK NORAKOAK

Camino jaunak bere artikulua (2005: 265) hasi bezain laster, guk Sakana erdialdeko eta Arakilgo hizkerak antzekoak ikusten ditugula eta, gure artikuluko ondorioetako hasierako paragrafoa, ez oso-osorik, dakar eta ez zaio erabat zuzena iruditzen bertan dioguna, ezen ohar batzuk egiten baititu, gehienak galdera erretoriko moduan. Eta ohar eta galdera erretoriko horien artean *sakanerak* izendapena ere jartzen du auzitan, beharrezkoa ikusten ez duelarik: “Hizkuntzalaritzaren alderditik ikusirik oinarririk ez baldin badu, zerendako sortu behar da ‘sakanerak’ izendapen hori?”. Eta segidan “Burundako euskara”, “Sakana erdialdeko euskara” eta “Arakilgo euskara” izenak zuzenak eta zehatzak direla esaten du.

Gu, Camino jaunak aipatutako artikuluetan, egungo Irañetako hizkerari era zehatzean eta Sakanakoei buruz orokorrean ari gara eta ez Arakil osoan euskara bizirik zegoenean baliatzen zituzten ezaugarriez, hauexek ezagutzen ez ditugulako besteak beste. Egun euskara ez estandarizatua bizirik dagoen herrietako hizkuntza ezaugarriak jaso ditugu bereziki eta, hauekin batera, aipatu egungo ezaugarri horiengandik gehiegi aldentzen ez diren grabaketa edota testuetako burutzapenak ere izan ditugu kontuan, hala nola EAELeko testuak, Euskal Dialektologiaren Hastapenak liburukoak, Juan Miguel Gastesi apaiz irañetarraren testuak eta Nafarroako Euskaldunen Mintzoak laneko grabaketa eta testuak besteak beste. Alboratu egin ditugu, beraz, esate baterako, Bonaparteren aginduz burutu ziren Urdiaingo eta Etxarri Aranazko dotrinak, Erizkizundi Irukoitzako emaitzak Sakanan, Bitoriano Huizi etxarriarraren *Manual de Gramática Bascongada* eta J.M. Satrustegiren “Arakil aldeko euskara” artikulua bera ere bai, hauek lehenago aztertu<sup>1</sup> genituelako eta baita garbi ikusi ere ez dutela inondik inora islatzen herri horietako hizkeren berezitasunak. Eta ez gara gu izan ondorio horietara iritsi garen bakarrak (Mitxelena, Zuazo...). Camino jaunak, dirudienez, Arakilgoari ere berezko izaera aitortzen dio, baina guk, hizkera horren ezaugarri eta berezitasunetan sartu gabe, soilik zeintzuk diren ezartzen dizkion mugak jakin nahi genuke. Ez hizkuntzari dagokion mailan, ez geografiari gagozkiolarik ere, guk ez daukagu, gaur egun behinik behin, batere argi non hasi eta bukatzen den haran hori. Zehaztasun bakarra maila administratiboan dugu eta hau ere aldakorra izan da azken urteotan. Gaur egun, hamabi kontzejuk osatzen dute Arakilgo

<sup>1</sup> Jose Luis ERDOZIA, “Bitoriano Huiziren Manual de Gramática Bascongada”, *FLV*, 82, 1999.

Jose Luis ERDOZIA, “Erizkizundi Irukoitza Sakana erdialdean”, *FLV*, 83, 2000.

Jose Luis ERDOZIA, “Etxarri-Aranazko dotrina. Sakana ekialdearekiko alderaketa”, *FLV*, 86, 2001. Azken artikulua honetan, Etxarri Aranazko dotrinaz gain Satrustegiren “Arakil aldeko euskara” ere aztertu genuen.

udala eta Camino jaunak hainbestetan aipatzen duen Murgindueta aspaldi, duela hogeita bosten bat urte bai behintzat, ageri zaigu herri galdu gisa. Irurtzun Arakilgo udaletik kanpo agertzen da azken urteetan, udal bereizia baita. Irañetako hizkera, bestalde, Arakilgotzat hartzen du Camino jaunak berak bere artikuluaren bigarren atalean, Arakilgo kokagune dialektologikoaz ari denean: "... trantsizio hizkera baitzen Arakilgoa, Irañetako eta Murgindueta-ko adibideak salatzen dutenez bederen". Eta Uharte Arakil ez genuke Arakil haraneko herrizat hartu behar? Sakana bertako jendeari galdetuz gero bai geografia mailan nola hizkuntzarenean non hasten den Arakil harana mendebaldetik, era denetarikoak izango genituzke erantzunak, baina gehienek Uharte Arakilen edo Irañetan jarriko lukete hasiera. Eta ekialdekoa ezartzeko orduan, antzeko arazoak izango genituzke, Irurtzun, Izurdiaga, Urritzola, Errotz, Aizkorbe, Oskiako harratea edota Atondo Itza bera ere entzungo genituzkeelarik, seguru asko, muga moduan.

Sakana erdialdea izendapena, aldiz, ontzat ematen du Camino jaunak eta hau bai erabat berria dugula, duela gutxi sortua beraz, gaztelaniako *Barranca* izena eta XIX. mendean desegin zen Arañaz Elkartea ordezkatzeko erabili izan dugularik Etxarri Aranaztik Uharte Arakiler (Zuzena ote da geografiaren ikuspegitik herri hau ere Sakana erdialdean sartzea?) bitarteko hizkuntza eremua izendatzeko. Guk, atzera berriz, errepikatuko dugu gure lanen helburua, gehienbatean behintzat, Sakanako egungo euskara ez estandarizatuaren egoera zertan den jasotzea dela eta, honekin batera, horretarako gai garen neurrian, ondorio dialektologikoak ateratzea. Zer kalte egiten dio, orduan, euskal dialektologiari orokorrean eta Sakanako hizkeren azterketari zehatzago, *sakanerak* izendapena erabiltzeak? Izendapen honekin adierazi nahi izan duguna, eremu geografiko jakin batean, Sakanan, hizkera ezberdinak ditugula, baina, era berean, elkarreraginean izan direnez orain arte, ezaugarri komun ugari badituztela. Ez dugu beste inolako saiurik egin nahi izan, artikulua hauetan bederen, Sakanaz kanpoko gainerako hizkuntza eremuekin erkatzeko, ez mendebaldetik, ez ekialdetik, eta gauza bera iparraldeari, nola hegoaldeari dagokienez. Zerbait gehiago erantsi badugu, Zuazo dialektologoaren sailkapenaren inguruko erreferentzia moduan baino ez da izan, eibartarraren sailkapeneko hizkera nafarrean sartu ditugularik Sakana erdialdekoetik hasi eta ekialdera egun oraindik baliatzen diren Sakanako beste hizkerak.

Eta egin ditugun baieztapenak, Camino jaunari erabat zuzenak iruditu ez bazaizkio ere, ez dira modu arbitrarioan egindakoak izan berak horrela iradokitzen badu ere, hizkuntza ezaugarrietan oinarritutakoak baizik. Ezaugarri horiek eskusiboak ez direla? Bada, bai, guztiak ez dira eskusiboak banan-banan, baina multzoan hartzen baditugu bai erakusten digute nolabaiteko eskusibitatea Sakana erdialdeko eta Arakil haranaren mendebaldean dauden Irañeta eta Uharte Arakilgo ezaugarriek. Gainera, lehenago aipatu ditugun grabaketa eta testuetan (Ihabarkoak, Egiarretakoak, Irañetakoak eta Urritzolakoak) agertzen diren ezaugarriek ez dute herri horietako hizkera Sakana erdialdekoetik aldentzen, ezta gutxiago ere. Eta ezaugarri multzo honen arabera atera ditugu guk ondorio apal hauek.

Horien artean, Irañetako hizkerak bete-betean egiten duela bat Sakana erdialdekoarekin genion gure artikuluan eta, bai, beste behin aitortu behar diogu Camino jaunari arrazoi zerbait baduela, egokiago bailitzateke 'ia' partikula erabili izan bagenu moduzko aditzondoaren aurrean. Hala ere, Camino jaunak

ez du aipatzen zeren arabera erabiltzen genuen modu hain kategorikoan bete-betean aditzondoa. Ezaugarri bilduma nahiko luzearen arabera egin genuen baieztapen hori, berrogeita hamazazpi ezaugarri<sup>2</sup> fonetiko-fonologiko, morfologiko eta sintaxi mailako eta ia beste hainbeste burutzapen lexiko baliatu genituen, hain zuzen ere, ondorio horretara iristeko eta ezaugarri bilduma hori Sakana osoan burututakoa izan da. Ezaugarri horien artean, hemeretzi dira bokalismoari eta kontsonantismoari dagozkienak eta horietatik hamahiru bat datoz Irañetako hizkera eta Sakana erdialdeko herrietakoen artean:

- $a + a > a / V_{[-goi]}C_-$  bilakabidea.
- bokal asimilazioa.
- $ei > ai$  diptongo irekiera.
- $e > a / \_r$  bilakabidea.
- $-a$  organikoa.
- aferesi eta sinkopak.
- palatalizazioa.
- $-nd-$  kontsonante taldea.
- $z + z > z$  bilakabidea.
- hasierako  $e-$  bokalaren itxiera.
- $o > u / \_n$  bilakabidea.
- $-on$  bukaeradun maileguak.
- errotazismoa.

Beste sei ezaugarriek egoera nahasia erakusten dute:

- $l/n$  txandaketa.
- $b/p/f$  txandaketak.
- $d/r$  txandaketa.
- $ai > ei$  diptongo itxiera.
- $eu > au$  diptongo irekiera.
- $o > au$  diptongazioa.

Egoera nahasia esan dugu, eta ez burutzapen ezberdinak direnik. Ez genuen, beraz, fonetika-fonologia arloan ezaugarri ezberdinik aurkitu Irañetako hizkera eta Sakana erdialdekoaren artean.

Morfologikoak, aldiz, hogeita hamairu izan dira baliatu ditugun ezaugarriak eta horietatik hogeita bost berdinak dira bi eremutan:

- edute genitiboaren pluraleko morfema.
- datibo pluraleko morfema.
- soziatibo kasuko morfema.
- instrumentalaren morfema.
- destinatiboaren morfema.
- prolatiboaren morfema.
- inesibo eta leku-genitiboak izen bizidunekin darabilten morfema.
- adlatibo bukatuzkoaren morfema.
- moduzko aditzondoak sortzeko morfema.
- ugaritasuna adierazteko atzizki eratorlea.
- eduki aditzaren  $-z-$  pluralgilea.

<sup>2</sup> Zehaztasun gehiago nahi duenak ikus dezala “Sakanerak” gure artikulua *FLV* aldizkariko 98. zenbakian, 59-77 orrialdeetan.

- NN<sub>i</sub> saileko adizkien erroa.
- partizipioa + *-tal/-rik*.
- mailegatutako partizipioetan *-atu*.
- lehen aldiko adizkietako *-i-* morfema.
- NN<sub>k</sub> erako adizkietako *-u-* erroa.
- partizipioetako *-i* bokalaren sinkopa.
- partizipio analogikoak.
- moduzko aditzondoak burutzeko *-(ka)kan* morfema.
- geroaldiko *-en* morfema.
- NN<sub>i</sub>N<sub>k</sub> erako adizkien *-u-* erroa.
- aditzen bigarren pertsonako *y-* marka.
- aditz sintetikoen iraganeko *-a-* morfema.
- etorri aditzaren era trinkorik ez erabiltzea.
- ‘ahal izan’ aditz perifrasiaren erabilera.

Ezaugarri batek, zenbatzaileen burutzapenak, egoera nahasia erakusten digu eta beste zazpiak ezberdinak dira bi eremutan:

- ablatibo eta motibatiboko morfemak.
- aditzen pluraleko bigarren pertsonaren morfema.
- hirugarren pertsonaren morfema.
- NN<sub>k</sub> erako *-z-* pluralgilea.
- NN<sub>i</sub>N<sub>k</sub> erako *-it-* pluralgilea.
- alokutiboetako *-t-* morfema maskulinoa.
- ‘joan’ aditzaren forma bakarra.

Burutzapen lexikoei dagokienean, berriz, berrogeita hamabostetik soilik bost dira ezberdinak:

- *zarrapo* – *kunkun* Sakana erdialdean.
- *giltzurri* – *gultzurri* Sakana erdialdean.
- *naurri* – *laurri* Sakana erdialdean.
- *martutse* – *masuste* Sakana erdialdean.
- *zirrin/gauxirrin* – *iñere/iñerexagu* Sakana erdialdean.

Sintaxi mailako ezaugarriak era berean erabiltzen dira Sakana erdialdean eta Irañetan:

- interjekzioak.
- juntagailu hautakari bakarra.
- aditz perifrasiak.
- kausazko menderagailuak.
- *al* partikula galdetzailea.

Laburbilduz, eta lehenago esaten genuen moduan, berrogeita hamazazpi ezaugarri erabili ditugu Sakana osoko hizkerak aztertzeko, eta horietatik berrogeita hiru berdinak dira Sakana erdialdean eta Irañetan (%75), zazpi ezberdinak dira (%12) eta beste zazpiak (%12) egoera nahasia erakusten dute. Erabaki subjektiboa iruditzen zaio Camino jaunari guk hartutakoa? Bada, argitu beharko liguke non dagoen subjektibitatea.

Lexikoaren arloan, bestalde, ondorengo esaten digu Camino jaunak bere artikuluan: “Erdoziak dioenaren aurka (2004a: 514), erakusten dute ez dela ‘lexiko ia berbera baliatzen Sakana erdialdean eta Irañetan’, edota esan horri ñabardurak egin dakizkiokela; (...)”. Eta honen guztiaren “biziki adierazga-

rriak” diren Lakuntzako eta Irañetako bost burutzapen aipatzen dizkigu: *parra* (Lak) – *irri* (Ir), *ostu* (Lak) – *ebatsi* (Ir), *masosta* (Lak) – *martutse* (Ir), *ataa* (Lak) – *atralata* (Ir) eta *arte* (Lak) – *artelerte* (Ir). Guk Irañetako hizkera aztertzerakoan hirurehun burutzapen baino gehiago erabili genituen esku artean, baina soilik berrogeita hamabost nabarmenenak islatu genituen “Sakanerak” artikuluan, gainerakoak Sakanan bertan eta kanpoan nahiko komunak zirelaketz baztertu genituelarik. Hala ere, Camino jaunari “dialektologiaren aldetik biziki adierazgarriak” iruditzen zaizkion burutzapen horietako batzuk ezagunak dira Sakana erdialdean. Esate baterako, *irri* Ergoienean eta Uharte Arakilen ere erabiltzen dute; *atra* eta *ata* lehena Lakuntzan, Arruazun eta Uharte Arakilen, eta bigarrena Burundan, Arbizun, Lizarragabengon eta Unanun. Beraz, *ebatsi*(?)*ostu*, *martutse/masuste* eta *erte/arte* burutzapenek erakusten digute, lexikoari gagozkioarik, hizkera ezberdinak direla Sakana erdialdekoa eta Irañetako? Etxarri Aranatz eta Arbizuren artean, Lizarraga eta Dorraoren artean edota Lakuntza eta Arruazuren artean ere ausartuko ginatete aurkitzera tamaina horretako berezitasunak. Datuak aztertzeko era honek, zer adieraziko liguke? “Eskuleku teoriko–metodologiko ziburra, sendoa, gehienek onetsia edo estandarizatu?” “Konbentzimendu pertsonala” alboratu egiten dela? Guk ez dugu hala uste, eta ez dugu ulertzen zergatik kontuan izan behar ditugun soilik tamaina honetako ezberdintasunak, hauek gutxiengo nabarmena direnean gainera.

## SAKANAKO HIZKEREN EGUNGO EGOERA

Horrela genioen ‘Sakanerak’ artikuluko<sup>3</sup> ondorioetako hasierako paragrafoan: “Aztertutako honen guztiaren arabera, bi hizkera eremu berezituak ezberdin daitezke Sakana osoan: Burundakoa, alde batetik; eta gainerakoa, Sakana erdialdekoa eta Arakilgoa, bestetik”. Eta horrela diogu oraingo honetan atzera berriz, azpimarratuz, hori bai, guk kontuan izandako ezaugarri multzoaren arabera bereizten ditugula aipatu bi eremuak eta, gainera, ahaztu gabe egun bizirik dauden hizkerak erabili ditugula, bereziki, azterketa hauxe egiteko orduan. Bestalde, Arakil harana non hasi eta bukatzen deneko auzia beste baterako utziko dugu, baina ez dugu zalantzarik esateko Uharte Arakil eta Irañeta (Arakil ez direla esan badaiteke) erabat erlazionaturik daudela haran honekin, bai geografia mailan nola hizkuntzarenean.

Burunderaren gainean guk egindako baiztapenen aurrean ez du Camino jaunak ezer eranstekorik agertu, baina, hala ere, Sakana erdialdea eta Arakilgo ondorioak nola atera ditugun argitu dugunez artikulua honetan, gauza bera egingo dugu Burundako hizkeraren ingurukoekin, horrela garbi ikusteko datu sorta berbera erabili dugula ‘Sakanerak’ artikulua burutzeko orduan, eta ez ditugula helburu jakin baten mesedetan erabili.

Sakana erdialdea eta Irañeta bertako hizkerak aztertzerakoan baliatu ditugun ezaugarri berberak erabili ditugu Burundakoarekin ere. Hau da, fonetika–fonologia mailako hemeretzi ezaugarri, morfologiakoak hogeita hamahiru eta sintaxiari dagozkionak, aldiz, bost. Eta hauetaz gain, maila lexikoko

<sup>3</sup> Jose Luis ERDOZIA, ‘Sakanerak’, *FLV*, 98, 59-77 or., 2005.

ezaugarriak (berrogeita hamabost burutzapen) ere jarri ditugu aurrez aurre Sakana osoko hizkerak erkatu ditugunean.

Eta horrela, burundera eta Sakana erdialdeko hizkerak erkatuz, bokalismoari eta kontsonantismoari dagozkien hemeretzi ezaugarrietatik soilik lau (laurak bokalismoari dagozkionak) burutzen dituzte era berean:

- *-on* bukaeradun maileguak.
- *o > u / \_n* bilakabidea.
- *eu > au* diptongo irekiera (hau hautazkoa da Burundan).
- hasierako *e-* bokalaren itxiera.

Beste hamabostak era ezberdinean burutzen dira bi eremuetan:

- *-e + -a > (-ea) > -ia* disimilazioa.
- bokal asimilazioa.
- *ei > ai* diptongo irekiera.
- *ai > ei* diptongo itxiera.
- *e > a / \_ṙ*.
- *-a* organikoa.
- aferesi eta sinkopak.
- palatalizazioa.
- *-nd-* kontsonante taldea *i* bokalaren ondoren.
- *z + z > tz*.
- *l/n* txandaketa.
- *d/r* txandaketa.
- *b/p/f* txandaketa.
- *o > au* diptongazioa.
- *errotazismoa*.

Morfologiari erreparatzen badiogu, berriz, erabili ditugun hogeita hamahiru ezaugarrietatik, soilik bederatzi burutzen dira modu berean bi eremuetan:

- deklinabideko destinatibo kasuko morfema.
- prolatiboko morfema.
- izen bizidunekin erabiltzen diren inesibo eta leku-genitiboaren morfemak.
- partizipioa + *-(r)ik* egituraren erabilera.
- partizipio sinkopatuak.
- moduzko aditzondoetako *-(ka)kan* morfema.
- geroaldiko *-en* morfema.
- ‘etorri’ aditzaren era trinkorik eza.
- ‘ahal izan’ aditz perifrasiaren erabilera.

Modu ezberdinean burutzen dira, orduan, morfologiari dagozkion hogeita lau burutzapen:

- edute-genitiboko pluraleko morfema.
- datibo pluraleko morfema.
- soziatiboko morfema.
- instrumentalaren morfema.
- ablatibo eta motibatiboko morfemak.
- adlatibo bukatuzkoaren morfema.
- moduzko aditzondoak sortzeko morfema.

- ehuneko zenbatzaileak.
- ugaritasuna adierazteko atzizki eratorlea.
- aditzaren pluraleko bigarren pertsonaren morfema.
- aditzaren pluraleko hirugarren pertsonaren morfema.
- ‘eduki’ aditzaren pluralgilea.
- Nor Nork erako aditzaren pluralgilea.
- Nor Nori Nork erako aditzaren pluralgilea.
- Nor Nori saileko aditz laguntzailearen erroa.
- alokutiboetako hasierako morfema.
- partizipioetako *-atu* > *-au* bilakabidea.
- adizkietako lehen aldiko morfema.
- ‘joan’ aditzaren adizkiak.
- Nor Nork erako aditz laguntzailearen erroa.
- partizipio analogikoak.
- Nor Nori Nork erako adizkien erroa.
- bigarren pertsonako adizkien hasierako morfema.
- aditz trinkoen lehen aldiko morfema.

Sintaxian, bestalde, jakina denez, gutxiago dira kontuan izan ditugun ezaugarriak eta, era berean, gutxiago ere ezberdintasunak. Bost ezaugarri azaldu ditugu eta horietatik bat baino ez da ezberdina bi eremuetan:

- kausazko esaldietako *bait-* menderagailuaren erabilera.
- Berdin burutzen dira, beraz, beste lau ezaugarriak:
- interjekzioak.
- juntagailu hautakari bakarra.
- *-t(z)era eman* aditz perifrasiaren erabilera.
- galderazko perpausetako *al* partikula ez da erabiltzen.

Eta, azkenik, lexikoaren inguruan oso hitz bikote esanguratsu eta bereizgarriak, dialektologiaren ikuspegitik behintzat, agertzen zaizkigu bi eremuetan (lehen Burundakoa dugu eta bigarrean, aldiz, Sakana erdialdekoa):

- *orri / osto.*
- *barru / barne.*
- *domeka / iyende.*
- *eroan / yaman.*
- *ira / ixtorra.*
- *izeko / izeba.*
- *izera / menddere.*
- *kare / galtzin.*
- *oiya / guatze.*
- *pitsa / aparra.*
- *gaztaia / gazta.*
- *iyo / itzoo.*
- *eztai / ezkontza.*
- *musti / busti.*
- *kipula / tipula.*

Eta horrela berrogeita hamabost, gutxienez, bereizi ditugu. Badira, jakina, burutzapen lexiko berdinak ere bi eremuetan: *Jangoikoaren gerriko* (ortzadar), *kunkun* (apo), *ilbeltz* (urtarril), *garagarzaro* (ekain), *garil* (uztail), *urri*



(irail), *lasteil* (urri), *etzin* (etzan), *ator* (alkandora), *ago* (aho), *gaztanbera* (mami), *mi* (mingain)...

Burunda eta Sakana erdialdeko (Uharte Arakil eta Irañeta barne direlarik) hizkeren arteko konparaketaren emaitzak, kasu honetan ere (gogoratu Irañetakoaz genioena), oso adierazgarriak izan dira: erabilitako berrogeita hamazazpi ezaugarrietatik berrogei (% 70) modu ezberdinean burutzen dira Burundan eta Sakana erdialdean eta hamazazpi (% 30), aldiz, modu berean burutzen dira.

Eta honexegatik, honen guztiaren ondorioz ausartu gara gu esatera egun Sakanan, euskara ez estandarizatuari gagozkiolarik, bi hizkera eremu nabarmen daudela, Burundakoa bata eta Sakana erdialdea eta Arakilgoa bestea, ondorengoak direlarik horien hizkuntza ezaugarriarik esanguratsuenak:

A. BURUNDA (Nafarrera, Erdialdekoa eta Mendebaldeko euskalkien arteko zubi hizkera):

- *-a + -a (> -ea) > -ia* disimilazioa: *festia, plazia*...
- *-ei > -ai* diptongo irekiera: *bain, maiku, bairatu*...
- *-nd-* kontsonante taldearen erabilera: *baindo*...
- *l/n* txandaketa: *narru, naurri*...
- Datibo pluraleko morfema *-airi*: *mutilairi*...
- Destinatiboko morfema *-endako*: *semiaindako*...
- Prolatiboko morfema *-tako*: *semetako*...
- Moduzko aditzondoetako *-tol/-do* morfema: *txarto, ondo*...
- Nor Nork erako adizkien pluralgilea *-z-*: *genduzen*...
- Nor Nork erako adizkien erroa *-o-*: *dot, dok/n*...
- Alokutiboetako hasieran *j-*: *jak/n, jituk/n*...
- Erdal partizipioetako *-atu > -au* bilakabidea: *faltau, eskau*...
- Lexikoa : *domeka, eroan, orri, oiya, pits, musti, kendu*...

B. SAKANA ERDIALDEA ETA ARAKIL (Uharte Arakil eta Irañeta) (Nafarrera):

- *-ai > -ei* diptongo itxiera: *bei, jei, mei*...
- *-eu > -au* diptongo irekiera: *auri, auli, laurri*...
- Aferesiak eta sinkopak: *man, atra, jito, bedratzi*...
- *o > au* diptongazioa: *auntzi, aungi, auspel*...
- *-on* erdal maileguaren erabilera: *balkona, kamiona*...
- Soziatibo kasuko morfema *-ki*: *ardiyeki, jendieki*...
- Instrumental kasuko morfema *-(e)s*: *askos, etxes*...
- Destinatibo kasuko morfema *-arendako*: *amandako, semiendako*...
- Prolatibo kasuko morfema *-tako*: *semetako, alkatetako*...
- Inesibo kasuko izen bizidunen morfema *-aren baitan*: *guu beitten, amaan beitten*...
- Ablatibo kasuko morfema *-til/-di*: *menditti, andi*...
- Nor Nork erako aditz laguntzaileak *-u-* erroa bereziki: *dut, duzu, duzub(i)e*...
- Nor Nori erako aditz laguntzaileak *-ki-* erroa: *dakit* (zait), *dakiyo* (zaio)...
- Aditzaren bigarren pertsona singularreko marka *y-*: *yeiz, yakan*...
- Aditz sintetikoek *-a-* morfema iraganean: *zakiyen, zakan*...

- Partizipio analogikoak: *yondu* (egon), *izendu*, *ibildu*...
- *-t(z)era eman* aditz perifrasiak: *jatia eman*...
- Juntagailu hautakari bakarra *o(o)*.
- Kausazko esaldietako menderagailuak *bait-* eta *-lakos*.
- Lexikoa: *bulketu*, *osto*, *guatze*, *apar*, *hiende*, *yaman*...
- Uharte Arakilen eta Irañetan errotazismoko aztarnak ageri dira: *ortots*, *ortzegun*, *ortziral*, *ertsi*, *martutse*, *erran* (Ihabar)...

## BIBLIOGRAFIA

- CAMINO, Iñaki, "Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna", *FLV*, 99, 2005.
- ERDOZIA, Jose Luis, "Bitoriano Huiziren Manual de Gramática Bascongada", *FLV*, 82, 1999.
- , "Erizkizundi Irukoitza Sakana erdialdean", *FLV*, 83, 2000.
- , "Etxarri-Aranazko dotrina. Sakana ekialdearekiko alderaketa", *FLV*, 86, 2001.
- , "Irañetako euskara", *FLV*, 97, 2004.
- , "Sakanerak", *FLV*, 98, 2005.
- MITXELENA, Koldo, "De dialectología vasca", *FLV*, 58, 1991.
- SATRUSTEGI, Jose Maria, "Arakil aldeko euskara", *FLV*, 81, 1999.
- ZUAZO, Koldo, "Burundako hizkera", *ASJU*, XXVIII, 1995.
- , "Euskalkiak gaur", *FLV*, 78, 1998.
- , *Euskalkiak, herriaren lekukoak*, Elkar, 2003.

## LABURPENA

Artikulu honen bitartez aldizkari honetan, aurreko bi zenbakitan (97 eta 98), plazaratu genituen bi artikuluri ("Irañetako hizkera" eta "Sakanerak") buruzko argibideak eman nahi izan ditugu, horietan egiten genuen zenbait baieztapen auzitan ezartzen zuelako Iñaki Camino dialektologoak "Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna" artikuluan, aldizkari bereko 99. zenbakian. Hau dela eta, zertan oinarriturik egin ditugun gure baieztapenak azaltzen dugu eta, horrekin batera, Sakana haranean bereizi ditugun bi hizkera eremuen ezaugarri esanguratsuenak ere bertan agertu ditugu.

## RESUMEN

Por medio de este pequeño artículo hemos querido explicar los contenidos de dos artículos que publicamos en los números 97 y 98 ("Irañetako hizkera" y "Sakanerak") de esta revista, con motivo de lo manifestado por el dialectólogo Iñaki Camino en su artículo "Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna" del número 99 de la misma. Así pues, expresamos en qué se fundamentan las afirmaciones realizadas en dichos artículos y, junto a ello, exponemos las características más notables de los dos ámbitos lingüísticos que hemos diferenciado en el valle de Sakana.

## RÉSUMÉ

Ce texte a pour but de vous expliquer les contenus de deux articles que nous avons publiés dans les numéros 97 et 98 ("Irañetako hizkera" et "Sakanerak") de cette revue, à l'occasion des commentaires faits par le dialectologue Iñaki Camino dans son article "Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna", dans le numéro 99. C'est ainsi que nous expliquons sur quoi se basent les affirmations faites dans ces articles, et en même temps, nous

expliquons les caractéristiques les plus remarquables des deux domaines linguistiques que nous avons différenciés dans la vallée de Sakana.

#### ABSTRACT

This short article aims to explain the contents of two articles published in issues 97 and 98 (“Irañetako hizkera” and “Sakanerak”) of this publication in the light of the dialectologist, Iñaki Camino’s article “Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna”, issue 99. An explanation of the bases of the statements made in these articles is given, together with a description of the most notable characteristics of the two linguistic demarcations we have made in the Valley of Sakana.

